

# Bataio liskartsua

Donostia hazten ari da, eta kaleak eta plazak egiten ari dira hiriko hainbat lekutan. Kale izenak direla eta ez direla, liskarra dago Udalean.


Amaia Portugal eta Raul Perez uzi honek iazko azaroaren 12an du abiapuntu. Egun hartan, PSE-EE, EAJ-EA, PP eta IU-EBko ordezkariak osatutako batzordeak bilera egin zuen. Batzorde hark Donostiako 34 kale, plaza eta parke berri izena jartzea zuen eginkizun; toki horiek 'bataiatu' behar zituen, alegia.

Bileran, PSE-EEK aurkeztutako izen zerrenda izan zuten eztabaidagai. Leku zein pertsona izenez osatutako zerrenda, batez ere, Aranzadi Zientzia Elkartearen eta herritarren ekarpenez osatuta zegoen. Bazen, hala ere, PSE-EEK berak egindako proposamen bat edo beste: 'Ander Arzelus', adibidez. EAJ-EA koalizioak eta PPK, ordea, ez zuten PSE-EEren zerrenda onartu. Bi arrazoiengatik. Batetik, zerrenda itxia zela argudiatu zuten. Bestetik, ez

omen zuten proposamena aztertzeke, ezta beste izen zerrenda bat prestatzeke ere, astirik izan.

## Oposizioaren proposamenak

Azaroa eta abendua bitartean, oposizioak proposamen festa hasi zuen. EAJ-EAK, azaroaren 27an, bere zerrenda ezagutarazi zuen. Koalizioaren zerrendan pertsona izenak besterik ez zeuden: 20 gizonetako eta lau emakumezko. "Donostiarrak izan ala ez izan, hiri-memoriarekin nolabaiteko harremana duten pertsonaiekin osatu genuen zerrenda, emakumeen presentzia bermatuz", azaldu digu EAJ-EA koalizioko zinegotzi Patxi Baztarririk. Handik egun gutxira, PPren txanda iritsi zen: hiru hiri izen eta 20 pertsona-izen. PPko zinegotzi



Carlos Sanchezoren hitzetan, "donostiarrentzat maitagarriak diren pertsonaiek eta, bertakoak ez izan arren, unibertsalak direnak aukeratu genituen". IU-EBri dagokionez, erlijioarekin eta politikarekin zerikusia duten izenak saihestu beharra nabarmendu zuen, eta PSE-EEK aurkeztutako zerrendari beste izen batzuk gehietzea proposatu zuen.

Izen zerrendak mahai gainean zeuden. Eztabaidatzea besterik ez zen falta, beraz, izenen inguruan adostasuna lortzeko. Orduz geroztik Udaltzaren joan den asteo bilkurara arte, aldiz, kale eta plazen izenen auzia ez aurrera ez atzera egon da.

# Aurkeztutako izen zerrendak

## PSE-EE

(Aranzadi eta herritarren ekarpenekin)

<b>Kultura/Euskara</b>	Engomez
Manuel Vazquez	Larrerdi
Montalban	Peruene
Antonio Machado	Estibaus
Gloria Fuertes	Irasmonea
Joseba Zubimendi	Elenategi
Rafael Pikabea	Arbaizenea
Jorge Oteiza	Gurutzealde
Eugenio Goya	Pinu bidea
Jose Olaizola	Illarra Berri
Ander Arzelus	Goizueta
<b>Leku- izenak</b>	<b>Politika</b>
Nabasenesa	Dolores Ibarruri

## PP

<b>Kultura eta kirolak</b>	Aita Arizmendiarrera
Alfredo Goyeneche	<b>Enpresariak eta teknikariak</b>
Alburquerqueko Dukea	Jose Maria Agirre Gonzalo
Carmelo Berraola	Orbegozo anaiak
Francisco Escudero	Ramon Vizcaino
Julian Gayarre	Patricio Echeverria
Jorge Oteiza	<b>Lurraldeak eta hiriak</b>
Jose Hierro	Burgos
Alvaro de la Iglesia	Logrono
Miguel Mihura	Lisboa
Chumy Chumez	<b>Gizartea eta politika</b>
<b>Erljioa</b>	Albako Dukea (Jesus Agirre)
Sukia kardinala	Inigo Cervero
Laboa monsinorea	Rodriguez de la Fuente



## Bakerako eskubidea aztergai Kursaalean

Nazioarteko hainbat aditu daude egunotan Donostian, Bakerako Giza Eskubideari Buruzko I Nazioarteko Biltzarraren harira.

**B**akerako Giza Eskubideari Buruzko Nazioarteko Biltzarra antolatu du Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak. Nazioarteko hainbat aditu —giza eskubideekin eta nazioarteko gatazkekin lotutako mugimendu zein erakundeetako kideak, batez ere— bilduko dira Kursaal Jauregian. Bake eskubideaz gogoeta egitea, gaur egungo nazioarteko testuingurua aztertzea, eta eskubidea bideratzeko proposamenak egitea dira biltzarraren helburu nagusiak.

Biltzarra ostegunean hasi zen, eta larunbatean, hilak 8, bukatuko da. Hurrengo egunean, igandean, biltzarrean parte hartzen duten adituak Txillida-Lekura joatekoak dira.

### Hitzaldiak eta lan saioak

Nazioarteko 150 aditu inguru gonbidatu dituzte, hitzaldiak eskaintzeko eta lan saioetan parte hartzeko.

Hitzaldiak irekiak izango dira, baina aldeztu aurretik eman behar da izena, 943 12 14 03 telefonora deituta.

Mahai-inguruetan edo lan saioetan, aldez, gonbidatutako adituak soilik sartu ahal izango dira.

Jardunaldi hauetako ondorioak Nazio

Batuen Erakundeari helarazteko asmoa dute antolatzaileek. Horrez gain, proposamena aurkeztuko dute, Bakerako Giza Eskubidearen aldeko nazioarteko sarea osa dadin.

### Lau ardatz nagusi

Ostegun goizean biltzarra inauguratu zuten Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Joseba Azkarraga Justizia sailburuak. Ondoren, International Crisis Group erakundeko kide Nancy Soderberg-ek, eta Bake Kulturarako Fundazioaren presidente Federico Mayor Zaragozak eman zuten lehen hitzaldia. Arratsaldean, berriz, bakerako eskubidearen definizioaz eta egoeraz aritu ziren adituak.

Ostiral goizean, gatazken faktoreak izango dituzte eztabaidagai. Arratsaldean, berriz, aktore nagusiak.

Larunbat goizean, etorkizunerako proposamenez ariko dira. Amaitzeko, arratsaldean, euskal gatazkaz mintegia egingo

**Ondorioak NBeri helarazteko asmoa dute antolatzaileek**

dute. Honako hauek ariko dira: Elkarriko Jonan Fernandez, EHUko irakasle Imanol Zubero, Democracia Civica mugimenduko koordinatzaile Manuel Escudero, eta zientzia politikoetako doktore eta bitartekari-tza lanetan aditu Julian Thomas Hottinger.

### Kale kantoitik

#### Hitzaldi irekiak

Aipatu bezala, jardunaldietako lan saioak soilik adituentzat dira, baina hitzaldiak irekiak dira. Hitzaldiotara joan ahal izateko 943 12 14 03 telefonora deitu behar da. Hona ostiraleko eta larunbateko hitzaldiak.

#### Maitzak 7

19:30: Yossi Beilin Israelgo Gobernuako ministro ohia eta Yasef Abed Rabbo Palestina-ko Gobernuako ministro ohia ariko dira. Biak Ginebrako ekimenaren bultzatzaileak izan ziren. Eklalde Hurbileko gatazkan Irtenbidea emateko hasitako elkarrizketen sustatzaileak.

#### Maitzak 8

12:30: Cora Weiss, Hague Appeal For Peace Lehendakaria eta Danielle Mitterrand, Franco-Liberto Fundazioako Lehendakaria.